

MARKINA-XEMEIN / 0-6 urte bitarteko umeentzako maletak daude bibliotekan

Maleta bakoitza 0-3 edo 3-6 adin tarteari dagokion materialagaz beteta dago; maileguan eroan daiteke.

EIDER MUGARTEGI

Bularretik mintzora tailerrekin amaitu eta maletak jarriko ditu martxan Herri Bibliotekak. Liburuekin egiten den moduan, maletak etxera eroan daitezke maileguan.

Bularretik mintzora egitasmoagaz lotuta, 0-3 eta 3-6 urte bitarteko umeentzako maletak egongo dira maileguan Herri Bibliotekan. Adin tarte bakoitzeko zortzi maleta daude, eta bakoitzean adinari egokitutako zortzi edo hamar liburu eta musika CD daude. "Maletak barruan duten materiala mintegi batek aukeratuta dago. Adinari begira, liburu eta musika egokiak aukeratu dituzte, azaldu du Herri Bibliotekako arduradun Igor Idoetak. Txikien maletan, esate baterako, Pazkoko txitaxoa, Gure Baserria, Zer diozu Kroko, Lokatzetan eta Bularretik Mintzora liburuak eta CDak daude.

Maletak maileguan ateratzeko, liburuekin egiten den bera egin behar da: Herri Bibliotekako karneta eroan eta hartu. Gero, denbora batean, etxean eduki ahalko da maleta liburuak irakurri eta musika entzuteko.

Adin tarte bakoitzerako dauden zortzi maletetan material bera dago, baina aldiro aldatzen joango direla jakitera eman du Idoetak. "Guztia euskaraz dago, gaineratu du bibliotekako arduradunak.

Irakurzaletasuna sustatzeko

Galtzagorri Elkarteak antolatutako Bularretik mintzora egitasmoa 0 eta 6 urte bitarteko haurren guraso eta hezitzaileei dago bideratuta. Beraiek dira bitartekari haur horien irakurzaletasuna sustatzeko garaian.

Horregatik, hainbat liburu zerrenda prestatu dituzte irakasleek, hezitzaileek eta gurasoek jakin dezaten zein den aproposena adin tarte bakoitzean erabiltzeko.